





ASMAKIZUN ERRAZAK

| | |
|---|--|
|  |  15 min |
| MATERIALA - Asmakizunak prestatu. | |

AZALPENA

Asmakizun zahar eta betiko horiez aparte, irakasleak nahiko erraz asma ditzake asmakizunen antzeko esaldi errazak. Aski da gauza ezagun bat deskribatzea:

A.- Edateko balio du, kolore zuria du eta behiek ematen dute. Zer da?

B.- Hegan egiten badaki, baina ez du arnasarik hartzen. Zer da?



Hurrek ere idatziz presta ditzakete honelako asmakizun erratzak.

ALDAERAK

Jolasa zaildu nahi badugu, kartoitxo ateratzen duen haurrak atera duen irudiari buruzko ezaugarri batzuk esango ditu. Gelako besteek, asmatu egin beharko dute zein den objektua. Asmatzen duenak aterako du hurrengo kartoitxoa.



DASTATZEN

| | |
|---|--|
|  |  15 min |
| MATERIALA | |
| <ul style="list-style-type: none">- Jangai ezberdinak: gatza, azukrea, irina, kafea, ozpina, ura, limoia...- Begiak estaltzeko oihal zatiak. | |

AZALPENA

Haur batek bazkaltzera deituko die besteei. Mahaikideak eseri bezain laster, begiak estaliko dizkie, eta bakoitzari dastatzeko zerbait eman (gatza, azukrea, irina, kafea, ozpina, ura, limoia...).

Haur bakoitzak dastatutakoa zer den asmatu beharko du eta atsegin zaion ala ez esan.

ALDAERAK

Behin jolasa menperatua dutelarik, zaporeei dagokion hiztegia lantzeko erabil daiteke. Horretarako haur bakoitzak esan beharko du dastatu duena gozoa, geza, gazia, garratza, mingotsa den.



HAUR GALDUA

| | |
|---|--|
|  |  20 min |
| MATERIALA | |

AZALPENA

Gelako bat udaltzain izendatzen da eta gelatik kanpora irtenarazten da pixka batean. Bitartean, “haur galdua” nor izango den erabakitzen da. Behin hori erabakita dagoenean, udaltzainari berriro sartzeko esango diogu, eta haur bat galdu dela adieraziko diogu:

- Jauna, haur bat galdu da. Aurkituko duzu?
- Tira, tira, nolakoa da haur hori?

Gainerako lagunek “haur galduaren” ezaugarriak emango dizkiote ordenean:

- Jertse horia darama.
- Ile beltza dauka.
- Neska da.

Sekula izenik eman gabe, udaltzainak asmatu beharko du.

ALDAERAK

Ezaugarri fisikoak bakarrik ematea.



HOTSIK ATERA GABE

| | |
|---|--|
|  |  10 min |
| MATERIALA - Hitz egokien zerrenda | |

AZALPENA

Haurrak binaka jartzen dira bata bestearen aurrean. Horietako batek zerrendatik hitz bat aukeratuko du eta hitz hori esan beharko du ezpainak mugituta baina soinurik atera gabe. Aurrean dagoenak hitza asmatu beharko du.

Hona hemen erabil daitekeen hitz zerrenda bat:

- Etxea
- Kotxea
- Txokolatea
- Bokata

ALDAERAK

Hasiera batean biek daukate hitz zerrenda aurrean. Behin jolasa bereganatu dutenean, hitz zerrenda kenduko zaie.



IKUSI-MAKUSI

| | |
|---|--|
|  |  10 min |
| MATERIALA: Ø | |

AZALPENA



Haur batek gelan ikusten duen gauza bat pentsatuko du eta andereñoari belarrira esango dio. Ondoren denak "Ikusi-makusi"ren kanta abestuko dute, eta hitza pentsatu duenak hasierako eta bukaerako silabak esango ditu. Besteek asmatu beharko dute.

ALDAERAK

Hasierako eta bukaerako letrak ematea.



ISILKA-MISILKA

| | |
|---|--|
|  |  15 min |
| MATERIALA | |
| - Hitz egokien zerrenda, edo txikientzak argazkiak. | |

AZALPENA

Haurrak bororbil batean jartzen dira, lehenengoak esaten dio bere eskuinekoari, belarrira eta isilean, hitz korapilatsuren bat, bigarrenak hirugarrenari, eta honela bira osoa eman arte. Azkenik, hasi duenaren belarritara heltzen da hitza, eta honek kritika egingo du, hots, hasierako hitza den ala deformatuz joan den beste hitz bat eman arte.

Hona hemen erabil daitekeen hitzen zerrenda: amorragarri, entzutetsu, isilarazi, tontotzat, beldurgarri, saltsa-maltsa, bidaiari, bizileku, ipuinzale, kakalardo, gamelutxo, takarraran, matrailgorri, sudurluze...

ALDAERAK

Esaldi osoekin ere jolas daiteke:

- Andres Mandres umia negarrez.
- Plentziako plazan, txapel txapal bat galdu da.



LA HABANAKO ONTZIA

| | |
|---|--|
|  |  10 min |
| MATERIALA: Ø | |

AZALPENA

Batek esaten du: “La Habanatik ontzi bat etorri da eta ekarri ditu... BOTILAK”
Besteek, hasierako silabarekin, “BO”-z hasten diren hitzak asmatu behar dituzte: BONBILA, BOTAK...

ALDAERAK

Jolasa zaitzeko hasierako silaba beharrian, lehenengo letra bakarrik erabiliko dugu: “B”.



LAGUN MUTUA

| | |
|---|--|
|  |  20 min |
| MATERIALA: Ø | |

AZALPENA

Ikasle batek mutuarena eginen du eta besteak bororbilean eserita egongo dira. Azken hauek galdera bat egingo diote eta mutuak mimika bidez erantzun beharko du. Honako galderak egin ditzakete:

- Zer moduz zaude?
- Zenbat anai-arreba zarete?
- Non bizi zara?
- Zer egiten duzu gehien gustatzen zaizun txokoan?
- Zer egingo duzu gero?
- Zer egiten du andereñok?
- Nolakoak dira elefantearen belarriak?...



Mimika bidez egindakoa asmatzen duena aterako da mimika egitera.

ALDAERAK

5 urtetan eta LH-n mutuarena egin duenak egindako galderak idatziko ditu, galderak ez errepikatzearren.



NON NAGO?

| | |
|---|--|
|  |  15 min |
| MATERIALA - Etxeko zatien edo herriko lekuen irudiak | |

AZALPENA

Etxeko zatien edo herriko lekuen irudiak banatzen dira ikasleen artean. Gero batek "Non nago?" galdegin, eta beste batek asmatu egin behar du zein toki den.

Komunean, gelan, sukaldean, tximinian, leihoan, armairuan...



ALDAERAK

Lantzen ari garen gaiekin erlazionatutako tokiak lantzeko erabil daiteke:

- Mielotxin: Lantzen
- Momotxorro: Altsasun
- Zanpantzar: Iturenen edo Zubietan...



NOR NAIZ NI?

| | |
|---|--|
|  |  15 min |
| MATERIALA - Oihal bat begiak estaltzeko. | |

AZALPENA

Haur bati begiak estaltzen zaizkio eta honek itsuarena egingo du. Besteak banan-banan igarotzen dira ondotik “nor naiz ni?” galdetuz, horretarako ahotsa alda dezakete. Ikusten ez duenak asmatu egin behar du nor den.

Asmatuz gero, besteari jarriko diogu zapia, eta orain honek asmatu beharko du.

“Itsuak” galderak egin ditzake, besteari hitz eginarazteko:


- Non bizi zara?
- Zein da gehien gustatzen zaizun kirola?

ALDAERAK

Jolasa zaildu nahi badugu, “itsuak” hiru galdera egin beharko ditu nahitaez eta gero izena asmatzen saiatu.



NORK DAUKA?

| | |
|---|--|
|  |  15 min |
| MATERIALA | |
| - Txartelak. Plastika orduan presta daitezke. | |

AZALPENA

Jokalari hainbat txartel egin behar dira lehenik. Txartel bakoitzak marrazki bat izango du alde batetik, eta bestetik, esaldi bat. Esaldi horrek ez du marrazkiarekin zerikusirik izango baina beste txartel bateko marrazkiari egingo dio erreferentzia.

Ikasle batek bere esaldia irakurtzen duenean, beste guztiek ulertzen saiatu behar dute eta bere marrazkiari dagokion egiaztatu.

A.- Etxeko tximiniatik kea ateratzen da

B.- Nik daukat! Hau da!



PISTAK EMAN

| | |
|---|--|
|  |  10 min |
| MATERIALA: Ø | |

AZALPENA

Denak borobilean eserita daudelarik, batek gauza bat pentsatu behar du. Besteek galderak egingo dizkiote baina erantzuna BAI edo EZ bakarrik izan daiteke.

Adibidez, eman dezagun BONBILA hitza pentsatzen dugula.

Galderak:

- Gela honetan dago?
- Oso handia da?
- Denok daukagu?
- Egurrezkoa da?



ALDAERAK

Asmatzen oso zaila suertatzen bada, beste argibide batzuk ere emango dira. Esate baterako:

- Goiko aldean dago
- Arratsaldean behar izaten da



TRESNA MAGIKOA

| | |
|---|--|
|  |  10 min |
| MATERIALA | |
| - Gelan dagoen materiala erabili daiteke: arkatzak, baloia, sokak... | |

AZALPENA

Aukeratutako materialetatik zerbait hartu eta gogorarazten digun beste edozein gauza balitz bezala erabiliko dugu.

Beste batek asmatu egin beharko du zer adierazi nahi dugun.

Esate baterako, arkatza besapean ipintzen badugu, termometroa izan daiteke. Berdin-berdin irudika daitezke: orrazia, batuta, telefonoa, kohetea, motoa...

ALDAERAK

Jolas hori edozein materialekin egin daiteke, adibidez:

SOKA: sugea, tutua, trena, eskailera, kablea, hodia, erregelak, arkatza...

BALOIA: laranja, sagarra, gurpila, eguzkia, bonbila,...



TRIPAKO MINA DUT

| | |
|---|--|
|  |  15 min |
| MATERIALA: Ø | |

AZALPENA

Ikasle bat besteen aurrean altxatuko da eta mimikaz, nonbaiteko mina duela adieraziko du. Besteek asmatu behar dute, eta asmatzen duena aterako da.

Iñigok begietan eskuak jarri eta erantzuna:



- Iñigok begietako mina du.

ALDAERAK

Mimika bidez min hori zergatik edo nola egin duten antzeztu beharko dute.



ZER ARI ZARA?

| | |
|--|--|
|  |  20 min |
| MATERIALA | |
| - Ekintza batzuen irudiak txikientzat eta 5 urtekoentzat eta LH-koentzat idatziak. | |

AZALPENA

Jolasa hasteko, ikasle bat zutituko da eta hari txartel bat emango zaio dagokion ekintzarekin (erratza pasatu, lo egin, platerak garbitu, ikasi, kantatu, dantzatu...)



Gero, ikasle batek besteari "Zer ari zara?" galdetuko dio. Bigarrenak mimika bidez adierazi beharko du bere ekintza, besteak asmatu arte.

ALDAERAK

Ekintzak zailagoak gehituz.



ZER OTE DA?

| | |
|--|--|
|  |  15 min |
| MATERIALA | |
| <ul style="list-style-type: none">- Gelan dauden tresnak erabil daitezke.- Zorro bat. | |

AZALPENA

Objektu bat zorro batean sartu eta ikasleari emango zaio. Hark ondo ukitu ondoren zer den asmatu behar du.

ALDAERAK

Zorroan objektu bat baino gehiago sartzea eta denak asmatzea.



ZER ZEGOEN?

| | |
|---|--|
|  |  10 min |
| MATERIALA - Hormirudi batzuk. | |

AZALPENA

Hormirudi bat erakusten zaie ikasleei. Bertan azaltzen diren gauzen izenak asmatu behar dituzte. Gero, begien bistatik kenduko diegu irudia, ea zenbat gauzaz oroitzen!

ALDAERAK

Izenekin egiten den bezalaxe, ekintzekin ere egin daiteke, hots, aditzekin.

Nahi izanez gero, denbora jakin bat utziko dugu hormirudia agerian ikasleek ahalik eta xehetasun gehienak harrapa ditzaten, baina bakoitzak bere kontura eta isilean. Gero, irudia gordetakoan esan edo idatziko dituzte gogoan dituzten izenak.